

2021eko ekaina,
Bilbo

80 ERAKUNDEK BAINO GEHIAGOK OSATUKO DUTE **BBK KUNA 2030 KIDEAK**, BIZKAIAN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA HANDIA

- **BBK-k bere ibilbide-orrian du helburu horiek lortzea, eta orain, 2021ean, BBK Kuna, bere GJHen Etxea, irekiko du, Bizkaiaren etorkizuneko erronkei erantzuteko.**
- **Aliantzan, alde batetik, 17+1 AURRERAKIDE izango dira, GJH bakoitzeko bana +1; GJH bakoitzeko trakzio-erakundeak izango dira, eta karga handiagoa izango dute 2030 Agenda lortzeko.**
- **Aliantzan KIDEAK ere izango dira, GJH jakin bat aurrera eramateko aukeratuak izan ez diren baina sarean parte hartzeko eta mundu hobea lortze aldera ahaleginak batzeko interesa erakutsi duten erakundeak.**

Bilbo, 2021eko ekainaren 22a. Guztira 83 erakundek osatuko dute **BBK KUNA 2030 KIDEAK**, garapen jasangarrirako helburuak lortzeko erakundeen arteko aliantza. 2015ean, Nazio Batuek 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak hitzartu zituzten. BBK-k bere ibilbide-orrian du helburu horiek lortzea, eta orain, 2021ean, BBK Kuna, bere GJHen Etxea, irekiko du, Bizkaiaren etorkizuneko erronkei erantzuteko.

2030 Agenda ekintzarako deia da pobrezia-amaiera emateko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen duintasunaren alde egiteko. BBK KUNA 2030 KIDEAK sektore anitzeko aliantza bat izango da lankidetzaz eta berrikuntzaz bizkortzeko, Bizkaian 2030 Agenda aktibatu eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko. Gainera, BBK-k aitortzen du hizkuntza- eta kultura-aniztasunak funtsezko eginkizuna duela garapen iraunkor edo jasangarrian; beraz, BBK Kuna 2030 Kideak programak 17 GJH +1 (euskara, euskal kultura eta gaitasun eleanitza garatzea) sartzen du.



Nota de Prensa

Aliantzan, alde batetik, 17+1 AURRERAKIDE izango dira, GJH bakoitzeko bana +1; GJH bakoitzean trakzio-erakundeak izango dira, eta karga handiagoa izango dute 2030 Agenda lortzeko.

Gainera, indarrak batzeko eta deialdira aurkeztu diren proposamenetako bakar bat ere atzean ez uzteko, KIDEAK egongo dira aliantzan, GJH jakin bat aurrera eramateko aukeratuak izan ez diren baina sarean parte hartzeko eta mundu hobea lortze aldera ahaleginak batzeko interesa erakutsi dutenak.

BBK KUNA 2030 KIDEAK aliantzan parte hartzen duten guztiek konpromiso publikoa dute Bizkaia eraldatzeko eta etorkizun jasangarriagoa, bidezkoagoa eta zuzenagoa lortzeko.

Aliantza osatzen duten elkarte eta pertsonak aukera izango dute BBK Kunaren ekosistemaren parte izateko, baita ere testuinguru horretan sortzen diren tokiko eta nazioarteko aliantzetan sartzeko, GJHekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza espezifikoa jasotzeko, eta Ikaskuntza Komunitateetan, Ekintza-lkerketa Proiektuetan, The Future Game-n eta BBK Kuna-n gauzatzen diren gainerako proiektuetan parte hartzeko.

Gainera, BBK Kuna gunean, beren Garapen Jasangarrirako Helburuari lotuta, inpaktu-ekintza bat aktibatzeko aukera izango dute AURRERAKIDEEK, eta Garapen Jasangarrirako Helburu baten banderadun gisa, baita 2030 Agenda garatzearekin lotutako proiektuetarako finantzaketa eskuratzeko ere.

BBK-k, UNESCO Etxeak eta DOT S.Coop.ek, proiektu honetan laguntzen dutenek, elkarlanean hautatu dituzte AURRERAKIDEAK.



AURRERAKIDEAK

1 GJH: Pobrezia amaitzea

Caritas

UNICEF Euskadi

2 GJH: Zero gosea

Bizkaiko Elikagaien bankua

3 GJH: Osasuna eta ongizatea

Athletic Club Fundazioa

Biocruces Bizkaia

4 GJH: Kalitatezko hezkuntza

Centro de Formación Profesional de Somorrostro

Lauaxeta Ikastola

5 GJH: Genero-berdintasuna

Clara Campoamor

MET Community País Vasco

6 GJH: Ur garbia eta saneamendua

Aquadat

7 GJH: Energia eskuragarria eta ez kutsatzailea

Iberdrola

Berdeago

8 GJH: Lan txukuna eta hazkunde ekonomikoa

Lantegi Batuak



Grupo Urbegi

9 GJH: Industria, berrikuntza eta azpiegitura

Puente Bizkaia

Petronor

Arteche

10 GJH: Desberdintasunak murriztea

Bizitegi

Bakuva

11 GJH: Hiri eta komunitate iraunkorrak

Deusto Cities Lab Katedra

Bilbao Metropoli30

12 GJH: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

Elika

Grupo Eroski

13 GJH: Klimaren aldeko ekintza

BC3

Aclima (9 GJHtik mugitua)

14 GJH: Urpeko bizitza

Izaro SUB

GARAVILLA- Bolton food

15 GJH: Lehorreko ekosistemetako bizitza

Cátedra UNESCO Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental UPV EHU

Enkarterrialde



16 GJH: Bakea, justizia eta erakunde sendoak

EITB

17 GJH: Helburuetarako aliantza

Agirre Lehendakaria Center

Cebek

Innobasque

Metro Bilbao

17+1 GJH: Euskara, euskal kultura eta gaitasun eleanitza garatzea

Fair Saturday

Universidad- Cátedra UNESCO de Patrimonio Lingüístico Mundial

KIDEAK

3DLAN, Amiarte, Appsamblea Online, Bermeo Tuna World, Bilbao Arraunlari Beteranoak, Bilbao Basket Fundazioa, Bilbao, CEAR-Euskadi, Centro Formativo Otxarkoaga, Cluster Gaia, Coca – Cola, Coral de Bilbao, EuskarAbentura Elkarte, Feel the adventure, Ferruelo y Velasco, Gaman, Gaptain, Gaude, Gorabide, Hetel, IMQ Igorco, Ingreen, Kultiba, Kutxabank, Kuvu, La Cuadri del Hospi, La Salve Bilbao, Lagun artean, Lauro Ikastola, Last Tour, Lekeitioko Udal Liburutegia, Makuma, Medicos del Mundo, Mondragon Unibertsitatea, Norai, Ortzadar, Peñasal Kooperatiba, Realize S. Coop, Recircular, San Fidel Ikastola, San Viator, Save the Children, Sestao Berri, Techfriendly, Universidad de Deusto, Urremendi, Vidrala, Virtualware



Nota de Prensa

BBK KUNA

BBK beti egon da Bizkaiko errealitateari lotuta, eta bertoko erronkak konpontzen ibili da. 100 urte baino gehiagoz, Bilbok eta Bizkaiak unean-unean izan dituzten premia edo beharrezanez erantzuteko proiektuen buru izan da. Gizartea gero eta konplexuagoa da, eta erronka horiek ere bai.

2015ean, Nazio Batuek 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) hitzartu zituzten. BBK-k bere ibilbide-orrian du helburu horiek lortzea, eta horregatik, 2021ean, bere GJHen Etxea irekiko du, Bizkaiaren etorkizuneko erronkei erantzuteko: BBK Kuna. GJHen Etxeak bost solairuko eraikina izango du Bilbo Zaharraren bihotzean, adinekoen zahartzeari eta bakardadeari, klima-aldaketari, iraultza teknologikoari, hirien eraldaketari, migrazioari, ... irtenbideak emate aldera proiektu berritzaileak sustatzeko. Azken batean, GJHei erantzuteko erronkak dira, eta landu beharrekoak gizarte gisa hazten jarraitu ahal izateko, inor atzean utzi barik.

Bizkaiko GJHen Etxea nazioartean zentro aitzindaria izango da, gizarte-eraldaketari aplikatutako ikerketarekin, auzoaren parte-hartzearekin eta gizarteko eragile guztien —hau da, herritar, unibertsitate eta ikerketa-zentro, administrazio publiko eta enpresa pribatuaren— elkarlanarekin. Hori bereziki beharrezkoa izango da bizitzen ari garen ziurgabetasun-une hauen ostean, agerian uzten baitute tresna egokiak izan behar ditugula etor daitezkeen krisi berriak detektatzeko eta etorkizuneko eszenatokiak eraikitzeko.

www.kuna.bbk.eus